

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Nigeriako deltan sutan daude Shell-ekin

Munduko petrolio ekoizle nagusienetako den Nigeriak egunean bi milioi upel “urre beltz” merkaturatzen ditu. Urrutiko autoak mugiaraziko dituzte. Baina Niger ibaiaren delta inguruko herritarrei, aberastasun harrigarri horrek, orain artean ez die ekarri hondamendia eta buruko mina baizik.



POISON FIRE FILMAK 28 MINUTU dirau eta Internetez ikus dezakezu. Niger ibaiaren deltan egin dute elkarlanean Europako ekipo txiki batek eta bertako herritarrek. Azken 50 urteotan petrolioaren ustiaketak naturari bezala gizakiei ekarri dien biziezinaz ari da.

1956an Shell multinazional herbeherearrak lehenbiziko petrolio iturria zabaldu zuen Nigerian, Oloibiri herrian. Gaur egun Nigeria da munduko petrolio esportatzaile nagusien zerrendan zortzigarren. Baina deltako herritarrak ez daude horregatik harro.

Filmaren hasieran honela mintzatu zaio kamerari Tina Esegi neska gaztea: “Zuek usatzen duzuen gasolina hemen ateratzen da. Horrek Nigeria aberastu ahal izan zuen, baina hona bazatozte ez duzue horrelakorik aurkituko. Okerren ingurumena dago. Ez daukagu non bizirik, ez ospitale-rik, ezer ez daukagu. Hau ikusten ari zaren hori, begira, zuri gasolina hemendik iristen zaizu, baina ikusi nola bizi garen. Nik ikasketarik ez daukat, eskola garestiegia delako”.

Niger ibaiaren delta hondamendian dago, mende erdiz petrolioaren bilaketa eta ustiaketak eragindako txiki-zioengatik. Kalkulatzen da milioi eta erdi tona petrolio isuri dela bertako erreka, soro eta oihanetan, petrolio isurketen historian ikurra den Exxon Valdez ontziak zeramana halako 50. Munduak txintik esan gabe Nigeriako

itsas bazterrean urtero Exxon Valdez bat lehertu izan balitz bezala.

Baina gainera, petrolioak berekin dakarren gas naturala ez da aprobetxatzen eta erre egiten da, putzuen inguruan, herrien aldamenean, oihanean... edonon. Erretzean negutegi eragina duen gasa sortzen da: 18 milioi kotxek adinako gasa. Saharaz beheitiko herrialde guztiek baino negutegi gas gehiago isurtzen du Nigeriak bakarrik.

Gertatzen da Nigeriako petrolioak nahastuta besteek baino askoz gas natural gehiago daukatela. Lur azpiko presiopean gasa likido dago, eta lurrazalera atera arte ezin da petroliotik bereizi. Beste herrialde askotan gas natural hau bildu eta saldu egiten da, baina Nigeriak ez dauka azpiegitura egokirik. Besterik ezean posible lukete erretzean elektrizitatea sortzea, baina horretarako ere inbertsiorik ez dute egin nahi multinazionalak, eta kanpo librean hodiak sutan dauzkate, gau eta egun, inguruak kutsatuz, suteak eta leherketak eraginez.

Gasa modu masibo horretan kixkaltzeak dakartzen ondorioak ez dira aztertu, ez Nigerian bederen. Gobernuak deltan daukan ordezkarriak aitortu du uraren analisi oinarritzkoena egiteko ere ez daukatela laborategirik. Ikerketarik egon gabe ere herritarrek igarri diote eta kexu dira. Pertsonen osasuna hondatzen du, eritasunak ugaritzen, begietako gaitzak, abortuak,

arnasbideetako arazoak, kantzerren ugalketa... Nekazariak kexu dira uztak urritu direlako, haizeak barreiatutako toxinek lurra azidifikatzeagatik.

Airea kutsaturik eta urak zer esanik ez. 5.000tik gora dira hemen 50 urteotan suertatutako olio isurketa handiak. Deltako lautadak oihanez eta erreka beteta daude, euriaren edo marearen arabera urak alde batera edo bestera doaz zingiretan, eta petrolioak dena kutsatu du bere likaz. Arrainak akabatzen ditu, itsaskiak desagerrarazten, landaredia sunsitzten. Uraren erresuman familiei burukominak ematen dizkie egunero ur garbia eskuratu beharrak.

Gobernuaren gainetik multinazionala

Poison Fire filmak Nigeriako deltako herrietan bizibaldintzak hobetzeko lanean ari diren ekintzaileei egin die jarraipena. Petrolioak izorratutako baso, alor eta erriok erakusten dituzte. Beren haserrea azaltzen dute. Gero bideok erakusten du ekintzaile horietako batzuek egingo duten bidaia berezia.

Shell multinazional herbeherearra da Nigeriako triskantza horien ardurduna, eta lekuan bertan egindako negoziatioetatik ezertara iritsi ez direnez, Europako militante batzuen laguntzarekin Shellek Herbeheretan burutuko duen akziodunen batzarrean hitz egiten saiatuko dira.



Argazki handian, Nigeriako milaka sute basatietako bat filmatzen ari da *Poison Fire* ekipoa. Goiko txikian, errodejeko beste une bat. Bideomakinarekin ari dena da kronikan aipatzen den Tina Esegi. Beheko aldean Jonah Gbemre ageri da biloba besoetan duela. Iwherekan komunitatean "Ibegurako Che" deitzen dioten sindikalista zahar baina sasoiko honek eraman zuen auzitara Shell konpainia 2005ean. Auzia irabazi eta epaileek legearen aurkakotzat jo zituzten petrolio zelaietako gas erreketak. Keak eraman zuen epaia.

Nigeriako *Environmental Rights Action* (Ingurumen Eskubideen aldeko Ekintza) erakundearen ordezkari-tza bat doa, buruzagi Ifie Lott duela. Shellen urteroko akziodunen biltzarrean, Lottek lortuko du presidenteari galdegitea ea zer pentsatzen duten egitea Nigeriako kutsadura eta erreketak behingoz bukatzeko. Bai presidentearen erantzuna eta bai konpainiaren abokatuarena irakurleak erraz ikusi eta entzun ditzake Interneten *Poison Fire*ren gunean. Baita Shellek Nigerian daukan arduradunarena ere. Itxaropen gutxi alde horretatik: zer egin ikertzen ari omen dira, bertako agintariekin elkarlanean.

Gero ekipoa Nigeriara itzuliko da, eta mugimenduak biltzen dituen herritarrei erakutsiko dizkio bideoan

hartutako irudiak. Erantzunekin ez dira asko poztu.

Filmaren bukaera aldean epaile nigeriar baten irudiak erakusten ditu kamerak. Benin City-ko auzitegi batean erabaki baitute petrolioarekin datorren gas naturala erretzea ilegala dela, giza eskubideen kontra doalako. Epaitegi honek erabaki du hori legearen kontra doala, konstituzioaren kontrako delako, eta Shellek ariera hori eten egin behar duela. Baina legearen zirriktuez baliatuz, epaia betetzea atzeratzea lortzen du beti. Zinismoan urrats bat aurrerago eginez, Shelleko nagusiek Nigeriako agintariei egozten diete errua, "badakizu Nigerian agintariak nola dauden ustelduta". Militanteek ematen diete erantzuna: "Eta orduan, Nigeria nahiko gardena eta

demokratikoa ez bada, zergatik egiten ditu negozioak Shellek hemengo agintariekin?". Baina Shellen besoa urrun iristen da: 2005ean herritarrek irabazitako auziaren dosierra 2007an "galdu" egin zen, eta epailea Nigeriako beste muturrera bidali zuten.

*Poison Fire*ren zuzendaria Lars Johansson da. Lehendik lan gehiago eginak baditu lekuko ekintzaile sozialekin, berak *participatory video* deitzen duen eta euskaraz "auzolaneko bideo" esango genukeen formula erabiliz.

Johansson *The Ecologist* hilabetekariak elkarrizketatu du eta esplikatatu du nola lortu duen filma egitea beste kazetari asko arrestatu edo kanporatu dituzten lekuan. Bertako militanteekin elkarlanean tentu handiz jokatu behar izan du, baina ordainetan lortu du militarrek ere nahiko bakean uztea.

Nigeriako delta militarizatuta dauka gobernua. Soldaduen kontra gerrilla bat baino gehiago ere ari dira, sarritan gerrilla klasiko baino armada pribatu direnak. Hauen buruzagiekin ere mintzatu dira filmaren egileak, baina "horiekin egindako elkarrizketak ez sartzea erabaki dugu. Komunikabideen irrikaz daude eta munduko prentsaren arreta gure laguntzarik gabe ere lortzen dute. Baina oinezko jendea ez dago horien alde. Niger ibaiaren deltan, beste edonon bezala, ororen gainetik jendeak bakea nahi du". Bakean, baina Shellek itzali ditzala suak eta txukundu kaltetutako parajeak. ■

www.argaia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Z E R B I T Z U A

Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,
pertsonalizatua,
hurbila eta
etengabea.
Horixe
da gure
konpromisoa.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Herrani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL - 943 426 624